

2021EKO MAIATZAREN 11N UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO APIRILAREN 20KO BILKURAREN AKTA).
- 2.- MINTZALAGUNA PROGRAMAN PARTE HARTZEA.
- 3.- HERRIKO KULTUR ETA KIROL ELKARTEEI LAGUNTZAK BANATZEA.
- 4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 5.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO APIRILAREN 20KO BILKURAREN AKTA).

Alkateak, 2021eko apirilaren 20ko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- MINTZALAGUNA PROGRAMAN PARTE HARTZEA.

Alkateak hitza emanda, Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu), Mintzalaguna programaren azalpena egiten du. Zentzu honetan, Mintzalaguna Zegaman programan parte hartzeko herritarrei deialdia egingo zaiela azaltzen da, "mintzalagunak" eta "mintzalaguntzaileak" lortzeko. Horiekin taldeak osatu eta elkartuko dira, euskaraz hitz egiteko. Horrenbestez, programan parte hartzeko erabakia hartzea proposatzen da.

Hau aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitakoaren arabera, Mintzalaguna programan parte hartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

3.- HERRIKO KULTUR ETA KIROL ELKARTEEI LAGUNTZAK BANATZEA.

Toki Gobernu Batzarrak, 2021eko otsailaren 16an egin zuen bilkuran 2020. urteko ekintzengatik herriko Kirol eta Kultur Elkarten artean dirulaguntzak banatzeko prozedura eta irizpideak onartu zituen.

Herriko kultur eta kirol elkarteei onarpena helarazi eta eskaerak aurkezteko epea igaro ondoren, Alkateak adierazten du, Kultura Batzordeak proposatutakoaren arabera, udalerriko Kultur eta Kirol Elkarten artean dirulaguntzak banatzeko, onartutako prozedura eta programaren arabera, 2020. urteari dagokionez, Kultur Elkarten artean 5.540,00 euro eta Kirol Elkarten artean 12.525,27 euro banatzeko proposamena jaso dela. jarraian adierazten denaren arabera:

Kultur Elkarteak

| | |
|-----------------------|----------|
| Orkatz Abesbatza K.E. | 3.820,00 |
| Gazte Herexa K.E. | 1.720,00 |

Kirol Elkarteak

| | |
|----------------------------------|----------|
| Amezti M.E. | 1.620,00 |
| Elkartu Nahi T.E. | 3.866,77 |
| Aizkorri F.T. | 2.070,00 |
| Jentilbaratza Eskalada | 1.378,50 |
| Karraztarro Ehiz eta Arrantza E. | 1.970,00 |
| Tartaloetxe P.E. | 1.620,00 |

Horrekiko adierazten da, Elkartu Nahi T.E.ri, aurtan kasu berezi bezala, 1.896,70 euroko laguntza gehitzen zaiola helmugako arkua ordaintzeko. Era berean adierazten da, Jentilbaratza Eskalada taldeari, 241,50 euroko zenbatekoa duen fakturaren ordainketa aurreratutako zaiola, laguntza osoa 1.620,00 eurokoa izanik.

Bestalde Alkateak adierazten du, Tartalo Etxe Pilota Elkartearekin 2021eko aurrekontuan jasota dagoen 4.000,00 euroko dirulaguntza bideratzeko hitzarmena prestatu dela eta

datorren astean aztertuko dela. Horrenbestez, zenbateko hori datorren urtean ordainduko litzateke.

Zentzu horretan, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- 2020. urteko ekintzengatik herriko Kirol eta Kultur Elkarteen artean dirulaguntzak banatzeko prozedura eta irizpideak jarraituz, eta horien ondorioz egindako dirulaguntzaren banaketa onartzea.

Bigarrena.- Dagokion gastua onartzea, 2021ko Aurrekontu Orokorraren 1.0000.481.03.334.10.2021 aurrekontu sailari egotziz, eta ordainketa bideratzea. Nolanahi ere, adierazitako aurrekontu sailan 3.275,77 euroko egokitzapena egin behar dela azaltzen da, eta horrenbestez beharrezko kreditu hau bideratuko den hurrengo kreditu aldaketan jasoko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau adierazitako Elkartei jakinaraztea.

4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 06/0421 erabakia, apirilaren 21ekoa, Aitxuri herri eskolako aldagelak egokitzeko lanenagatik jarritako 4.275,19 euroko fidantza itzultzea erabakiz.
- 07/0421 erabakia, apirilaren 21ekoa, ezkontza baimentzeko ahalmena eskuordetuz.
- 08/0421 erabakia, apirilaren 23koa, Tartaloetxe Pilota K.E.ri, udal frontoia erabiltzeko baimena emanaz.
- 09/0421 erabakia, apirilaren 26koa, Eusko Jaurlaritzak bideratutako Oroimen Historikoa berreskuratzeko deialdiaren barnean laguntza eskaera bideratzea onartuz.
- 010/0421 erabakia, apirilaren 27koa, Gipuzkoako Kontratazio Zentralak bideratutako jasogailuen mantentze lanen espedientean atxikitzea onartuz.
- 011/0421 erabakia, apirilaren 27koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 012/0421 erabakia, apirilaren 27koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 013/0421 erabakia, apirilaren 29koa, 9 zenbakidun fakturen erlazioa (apirila 2), guztira 8.038,24 euro, onartuz.
- 014/0421 erabakia, apirilaren 29koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko iraunkortasuna eta ingurumeneko hobekuntza sustatzeko jarduerak egiten dituzten udalei, mankomunitatei eta eskualdeko erakundeei zuzendutako dirulaguntza deialdian, "Zegamako Gizarte Zerbitzuetako Eguneko Zentroaren handitzea eta erreforma" bideratzeko egindako laguntza eskaera ezeztatzeko eskatuz.
- 01/0521 erabakia, maiatzaren 3koa, kreditu txertaketa espedienteari hasiera ematea erabakiz.
- 02/0521 erabakia, maiatzaren 3koa, kreditu txertaketa espedientea onartuz.
- 03/0521 erabakia, maiatzaren 3koa, 10 zenbakidun fakturen erlazioa (maiatza); guztira 32.065,18 euro onartuz.

- 04/0521 erabakia, maiatzaren 7koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.

5.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), tentsio altuko linea dela eta Red Electrica Española udalarekin hartu emanik eduki duen galdetzen du. Alkateak erantzuten du udalera ez dela ezer iritsi, gonbidapen horrekin. Bere ustez, bi arrazoiengatik izan daitekeela esaten du, edo jakinaraztea ahaztu zaielako, edo linea Zegamatik igarotzen ez delako. Partzonerira iritsi zen deialdi hori, baina beraien uste dute Partzoneri Txikitik pasako dela, orduan, Partzone handi eta txikiko ordezkari batzuk bihar edo etziko bilerara joango direla adierazten du.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), udalekuei buruz galdetzen du, taldeak egituratzeko haur kopuruaz entzuten diren berrien inguruan udalak zer dakien galdetuz. Alkateak erantzuten du, Covid-19 gai hauen inguruan Foru Aldundiarekin aldika egiten den bilera kasualitatez gaur egin dela. Emandako mezua, pandemiaren egoera hobetua dela eta galde erreguetan udalekuen gaia azaldu da. Une honetan óko taldeak ezarrita ditu Eusko Jaurlaritzak, eta horren aurrean, zenbait udalek alegazioak aurkeztu behar dituztela esaten du. Foru Aldundian gai hau nola zegoen ez zekiten eta kontsultatu behar zutela. Zentzu honetan, taldeak seinaka jartzeak sortu ditzakeen arazoak azaltzen dira. Alkateak dio, bileran aipatu zitzaizela herri txiki eta handien errealitatea ez dela berdina. Horrenbestez, Foru Aldunditik egindako proposamenak jaso eta aztertuko dituztela esan zitzaizela, eta Alkateak dio, gutxienez iazko baldintzak mantentzeko esperantza duela. Era berean azaltzen da, Zegaman behintzat eskolako burbuilak mantentzea zela helburu adierazi zela. Izaskun Igoa Arizkorreta zinegotziak (Zegama Lantzen), gaiaren azalpenak ere ematen ditu, gazte plangintzako arduraren Ainitzerekin hitz egindakoa azalduz. Zentzu honetan adierazten da, Zegaman udalekuak sei astez osatzeko borondatea dagoela (beste herriekin alderatuz denbora asko dela azaltzen da). Alkateak azaltzen du ere, agintariei esan zitzaizela, udalekuak antolatzen ez badira, haurrak kalean ibiliko direla inolako kontrolik eta burbuilak ez mantenduz. Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak galdetzen du ere, ea hau antolatzeko dirulaguntzarik badagoen. Izaskun Igoa Arizkorretak erantzuten du Eusko Jaurlaritzak laguntza txiki bat ematen duela. Azkenik alkateak azaltzen du, begirale titulua ateratzeko praktikak egingo dituzten bi herritar hartuko direla aurrean ere, eta horren truke, begirale ikastaroaren matrikularen ordainketa egingo zaiela.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), Murgizelaiko parkean udarari begira egokitzapenak egitea komeni dela. Alkateak erantzuten du, udako kanpaina San Juan inguruan hastea aurreikusten dela, nolatan ere Sasietakoei eskatu zaie edukiontzia jartzeko jendea joaten hasi delako. Udal langileei ere adierazi zaie ostiral eta asteleheneran garbitzera joateko eta gaur egun han dauden trasteak kentzeko. Komunei dagokionez, erabileraren arabera agian martxan jartzea aurreratu beharko dela esaten da.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), Olaberriako aparkalekuan zer bait egiteko aurreikuspenik dagoen. Zentzu honetan azaltzen du haurrak bertan jolasten egoten direnez, segurtasun aldetik sarbidea nolabait mugatu daitekeen, eta bestalde, eremuan, lur eta egur pilaketa bat egin dela azaltzen du, pribatua izanda ere, ea garbitzea eskatu daitekeen galdetuz. Alkateak erantzuten du lursail jabearekin egon direla hau azaltzeko eta

berriz ere egongo direla. Eremuaren sarbidea egokitzeko aukeraz ere eztabaidatzen da (eremuaren sarrera margotzea, lorontziak, ...).

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) Bidean dokumentala ekainaren 4an eskainiko dela azaltzen du. Bi saio egingo direla adierazten da, ordutegiak atzeratzeko aurreikuspena dagoela azalduz, beti ere, ekintzak amaitzeko ezarrita dagoen ordutegia errespetatuz. Aforoaz eta dokumentala eskainiko den moduz eztabaidatzen da. Azkenik Alkateak azaltzen du, maiatzaren 21ean etxeetara zabalduko den ofizioan honen informazioa emango dela.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak eta hogeit hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztatutako eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2021ekok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2021.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO